

BIZKAIKO BASO-EKOSISTEMAK

Bizkaiaren sustraiak

ECOSISTEMAS FORESTALES DE BIZKAIA

Las raíces de Bizkaia



Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian
Evaluación de los Ecosistemas
del Milenio en Bizkaia



Ba al dakizu zein egoeratan dauden Bizkaiko basoak? Ba al dakizu, egurra emateaz gainera, beste zenbait zerbitzu ere eman dezaketela? Hala nola, klima-erregulazioa, biodibertsitatea mantentzea edo gozamina.

¿Conoces el estado de los bosques de Bizkaia? ¿Sabías que además de madera nos pueden proporcionar servicios como la regulación del clima, la conservación de la biodiversidad y el disfrute?

Bizkaia basoei estuki lotuta egon da beti, bere historiaren eta baldintza klimatikoaren eta geografikoaren ondorioz, eta horiek oinarritzko elementu izan dira Bizkaiko gizartearen, kulturaren, ekonomian eta paisaian. Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian programak egindako Bizkaiko baso-ekosistemen azterketak bizkaitarren eta gobernariaren esku jarri nahi du balio handiko ekosistema hauen gaineko informazioa lurralde-politikak landu ahal izateko garapen iraunkorren esparruan.

Bizkaia es un área que por su historia y sus condiciones climáticas y geográficas ha estado fuertemente ligado a sus bosques, siendo éstos un pilar muy importante de su sociedad, cultura, economía y paisaje. El estudio de los ecosistemas forestales de Bizkaia realizado por la Evaluación de los Ecosistemas del Milenio en Bizkaia quiere proveer a los vizcaínos y vizcaínas, y a sus gobernantes, de información para conocer mejor este ecosistema de gran valor de cara a la planificación de políticas territoriales en el marco del desarrollo sostenible.

Urte luzeetan zehar gauzatutako ustiapen gogorraren ondorioz, XX. mendearen hasieran ia ez zen basorik gelditzen Bizkaian. Egoera horri aurre egiteko, eta lehen sektorearen krisia bitarteko, basoberritzen hasi ziren kanpotik ekarritako espezieekin (radiata pinuarekin batez ere (ikus aldaketa oharean).


Gaur egun, baso-sistemek Bizkaiko azalaren % 57 estaltzen dute; horietatik % 21a bertoko baso da. Aurreko urteetan, ekoizpenaren irizpideari eman zitzaion lehentasuna, eta sektore sendo bat sortu zen. Azken urteotan, berriz, onartu da garrantzi handia dutela gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako beste alderdi batzuek ere.

Como consecuencia de la fuerte explotación llevada a cabo durante años, a principios del siglo XX apenas quedaban bosques en el territorio vizcaíno. Para hacer frente a esta situación, y fruto de la crisis agraria, se empezaron a hacer repoblaciones forestales con especies traídas de fuera (especialmente con pino radiata).

En la actualidad, el 57% de la superficie de Bizkaia está cubierta por sistemas forestales, de los que el 21% son bosques naturales. Durante estos años se ha primado el criterio de la productividad, habiéndose desarrollado un potente sector. Recientemente, por el contrario, se ha reconocido la importancia de tener en cuenta otro tipo de aspectos socio-ambientales.

1996 eta 2005 urteen arteko aldaketak

Cambios entre 1996 y 2005




- Koniferatik basorik gabeko gunera
De konifera a no forestal
- Basorik gabeko gunetik koniferara
De no forestal a conifera
- Basorik gabeko gunetik hariztira
De no forestal a robledal
- Koniferatik hariztira
De konifera a robledal
- Koniferatik eukaliptora
De konifera a eucalipto
- Basorik gabeko gunetik eukaliptora
De no forestal a eucalipto
- Hariztitik koniferara
De robledal a conifera
- Hariztitik basorik gabeko gunera
De robledal a no forestal
- Basorik gabeko gunetik artadira
De no forestal a encinar
- Eukaliptotik basorik gabeko gunera
De eucalipto a no forestal
- Beste aldaketa batzuk
Otros cambios

Bizkaiko baso-mapa, 2005

Mapa forestal de Bizkaia, 2005

Baso gabeko guneak Zonas no forestadas	43,31%
Koniferoen landaketak Plantaciones de coníferas	39,24%
Eukalipto landaketak Plantaciones de eucalipto	5,03%
hostozabalen landaketak Plantaciones de frondosas	0,60%
Erriberako basoak Bosques de ribera	0,68%
Artadia Encinar	2,32%
Erkameztia Quejigal	0,17%
Harizti baso mistoa Robledal bosque mixto	6,56%
Pagadiak Hayedos	1,96%
Urkidia Abedular	0,01%
Amezitia Torcomal o marojal	0,12%



- Bizkaiko azalaren % 57 estaltzen dute baso-ekosistemek, eta hauen artean espezie exotikoen landaketak dira nagusi (batez ere *Pinus radiata sp.*) egurra ekoizteko erabiltzen direnak batez ere.
- Hariztiekin, modu naturalean lurraldearen zati handiena estaliko lukeen landaredia bada ere (landaredi potentziala), lurralde osoaren %7a baino gutxiago hartzen dute gaur egun, eta nahiko zatikatuta daude.
- Azken 10 urteotan, harizti baso mistoaren berreskurapenerako joera ikus daiteke, sastrakadiaren segida ekologikoa dela-eta.
- Ikerketa eremuaren baso jardueraren intentsua aldatzen ari da: koniferen landaketek behera egiten dute, eta eukaliptoen landaketek, berriz, gora egiten dute, zeintzuek koniferen landaketak eta basorik gabeko gunek ordezkatzen dituzten.
- Baso-eremuaren % 62ak jabe pribatuak dira.

- La superficie de Bizkaia ocupada por ecosistemas forestales es del 57%, dominando las plantaciones de especies exóticas (principalmente *Pinus radiata sp.*), que están enfocadas principalmente a la producción de madera.
- Los robledales, a pesar de ser la vegetación que ocuparía la mayor parte del territorio de forma natural (vegetación potencial), en la actualidad, representan un área inferior al 7% del área total y presentan un grado de fragmentación elevado.
- En los últimos 10 años, se observa una tendencia de recuperación del robledal bosque mixto, como consecuencia de la sucesión ecológica del matorral.
- La intensa actividad forestal está cambiando hacia un descenso en la superficie de plantaciones de coníferas y un incremento en la superficie de plantaciones de eucaliptos, que sustituyen a las plantaciones de coníferas y a zonas no forestadas.
- El 62% del total del área forestal es de titularidad privada.

Datu horiek agerian uzten dute basoen kudeaketa funtsezko gaia dela Bizkaiko lurralde osoan, bai esparru publikoan, bai eta pribatuan ere. Ondorioz, agenda soziopolitikoetan lehentasunez aztertu beharko litzateke gizarte honek zer norabidetan gauzatu nahi duen kudeaketa hori etorkizunari begira.

Estos datos constatan que la gestión de los bosques, tanto desde el ámbito público como desde el privado, es una cuestión clave para Bizkaia a nivel territorial. Por lo tanto, decidir hacia dónde queremos dirigir su gestión como sociedad de cara al futuro, debería de ser una cuestión prioritaria en las agendas socio-políticas.

Baso-ekosistemen funtzioak eta zerbitzuak

Funciones y servicios de los ecosistemas forestales



01

Hornidura

- Elikagaiak (perretxikoak, basafruituak, ehiza, abereentzako larreak)
- Zura, egurra, zelulosa
- Baliabide genetikoak
- Energia (biomasa)
- Sendagaiak
- Artisautza eta apaingarriak egiteko materialak

Abastecimiento

- Alimento (setas, frutas del bosque, caza, pasto para ganado)
- Madera, leña, celulosa
- Recursos genéticos
- Energía (biomasa)
- Productos medicinales
- Materiales para artesanía y ornamentación

02

Erregulazioa

- Klima erregulatzea
- Airearen kalitatea
- Ziklo hidrikoak erregulatzea
- Lurzoruari eustea / higadura kontrolatzea
- Babesa perturbazio edota hondamendien aurrean
- Izurriak kontrolatzea
- Biodibertsitatea

Regulación

- Regulación de clima
- Calidad del aire
- Regulación de ciclos hídricos
- Retención de suelo / control de la erosión
- Protección frente a perturbaciones / desastres
- Control de plagas
- Biodiversidad



03

Kulturalak

- Espiritualak
- Artistikoak (Omako basoa)
- Aisialdia eta turismoa
- Estetikoak (paisaia-balorea)
- Hezkuntzarekin eta zientziarekin lotutako alderdiak
- Nortasun-sentimendua (Gernikako Arbola)
- Jakintza tradizionala

Culturales

- Espirituales
- Artísticos (Bosque de Oma)
- Recreación y turismo
- Estéticos (valor paisajístico)
- Educativos y científicos
- Sentido de identidad (árbol de Gernika)
- Conocimiento tradicional

Gizakiaren eragina zenbat eta arinagoa izan baso-ekosistemetan, eta horiek zenbat eta biodibertsitate handiagoa eduki, orduan eta potentzial handiagoa dute erregulazio-zerbitzuak eskaintzeko, bai eta hornidura- eta kultura-zerbitzuak eskaintzeko ere.

Horregatik, zenbat eta naturalagoa izan baso-sistema bat, orduan eta ahaldun handiagoa izango du hainbat zerbitzu eskaintzeko. Hala eta guztiz ere, iraunkortasun-irizpideei jarraiki behar bezala kudeatutako baso landatu batek ere bete ditzake erregulazio-zerbitzu garrantzitsuak, bai eta kulturalak, ere, hornidura-zerbitzuez gainera.

Cuanto menos agresiva es la acción del ser humano sobre los sistemas forestales y estos mayor biodiversidad albergan, mayor potencial tienen de ofrecer servicios de regulación, así como de abastecimiento y culturales.

Por ello, cuanto más natural sea un sistema forestal, mayor capacidad tendrá de proporcionar múltiples servicios. Sin embargo, una plantación forestal debidamente gestionada en base a criterios de sostenibilidad, puede llegar a cumplir importantes servicios de regulación, así como culturales, además de los de abastecimiento propiamente dichos.

Nora jo nahi dugu? Eta, bide horretan, zein da gutako bakoitzaren papera?

¿Hacia dónde queremos ir? En este camino, ¿cuál es el papel de cada uno?



Igone Palacios
UPV/EHUko ikertzailea
Investigadora UPV/EHU

«Ikerketa-proiektuetan sartu behar da lehendik daukagun jakintza (jakintza tradizionala barne), bai eta herritarren iritzia ere, horrela, kudeaketarako datu garrantzitsuak bildu ahal izateko. Horretarako, parte hartze prozesuak oso baliagarriak dira».

«Se trata de integrar en los proyectos de investigación, mediante el uso de metodologías participativas, el conocimiento existente (incluyendo el tradicional), así como la percepción de la población, y aportar así datos relevantes para la gestión».



Juan Antonio Dublang
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila
Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia

«Administrazioak garrantzi handiko papera joka dezake, bai legeriaren bidez, bai ekintza eredugarriak eginez. Esaterako, baso publikoak naturaltasun maila handiagoetara bidera litezke, kudeaketa hobetz eta baso autoktonoen berreskurapena bultzatuz».

«La Administración puede cumplir un papel relevante, a través de la legislación y con acciones ejemplificadoras, tales como redirigir los montes públicos a situaciones de mayor naturalidad, mejorando la gestión y promocionando la recuperación de bosque autóctono».



Claudia Maldonado
Errotuz Elkartea
Asociación Errotuz

«Iraunkortasuna ez da posible baso-ekosistemen baliabideenerabilerari eta kontserbazioari buruzko gizarte adostasunik eta oinarri tekniko sendorik gabe. Lanean jarraitzea beharrezkoa da ingurumenaren kudeaketa eta gizartearen eskaeren arteko kohesio hobea lortzeko».

«La sostenibilidad no es posible sin un consenso social y unas sólidas bases técnicas en torno al uso y conservación de los recursos forestales. En necesario seguir trabajando para lograr una mayor cohesión entre la gestión del medio natural y las demandas sociales».



Josu Azpitarte
Euskadiko Basogintza Elkarteen
Konfederakundea
Confederación forestalistas del País Vasco

«Posible da gure basoak zaintzeaz gainera horietatik etekin ekonomikoa ateratzea. Horretarako, egur ziurtatua erabiltzea sustatu behar da, baso-kudeaketa iraunkorretik datorrena hain zuzen ere».

«Es posible compaginar la conservación de nuestros bosques y el rendimiento económico de los mismos. Para ello es clave fomentar el uso de madera certificada, procedente de gestión forestal sostenible».

Ondorioak

Basoko sozio-ekosistemetan, iritzia eta interes kontrajarriak daude; horregatik, bereziki garrantzitsua da trade-off azterketak egitea (hau da, interes horien arteko truke-harremanak aztertzea), eta/edo guztien artean irtenbide positiboak bilatzea.

Bizkaia potentzial handia dauka baso-ekosistemen zerbitzuak mantendu ahal izateko, eta, horretarako, funtsezkoa da eragile guztiek parte hartu ahal izateko ekintzak gauzatzea. Xedea da irtenbide integratuak eta adostuak aurkitzea baso-kudeaketa hobetzeko, eta, beraz, baita ekosistemen funtzionaltasun anitza mantentzeko ere ere (guztiantzat mesedegarri diren irtenbideak).

Conclusiones

En los socio-ecosistemas forestales hay diferentes opiniones e intereses encontrados, por lo que los análisis de 'trade-offs' (es decir, análisis de relaciones de intercambio entre estos diferentes intereses) y/o la búsqueda conjunta de soluciones positivas adquieren especial relevancia.

Bizkaia tiene un elevado potencial para garantizar el mantenimiento de los servicios de los ecosistemas forestales y, para eso, es importante llevar a cabo acciones participativas con todos los agentes implicados. Se trata de buscar conjuntamente soluciones integradas y consensuadas para mejorar la gestión forestal y, por lo tanto, la multifuncionalidad de los ecosistemas (soluciones en las que todas y todos ganaremos).

